

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN DIAGNOSTIKOA



EUSKAL AIRE KIROL FEDERAZIOA
2023



Euskal Aire Kirol Federazioa
Fed. Vasca Deportes Aéreos



Financiado por la Unión Europea
NextGenerationEU



Plan de Recuperación,
Transformación y Resiliencia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

AURKIBIDEA

I 1. SARRERA	3
2. DIAGNOSTIKOAREN PROZESUA ETA METODOLOGIA	4
2.1. PROZESUAREN DESKRIBAPENA	4
2.2. METODOLOGIA	6
2.3. ATAL ETA EDUKIEN LABURPENA	8
3. DIAGNOSTIKOA	9
3.1. KUDEAKETA ETA GOBERNUA	9
a. GOBERNU ORGANOAK	9
b. KUDEAKETA ETA GOBERNANTZARAKO EREDUA ETA TRESNAK	10
c. ERAKUNDEKO LANGILEAK ETA BOLUNTARIOAK	10
d. KOMUNIKAZIOA (BARNEKOA ETA KANPOKOA)	11
e. ELKARRIZKETA GIZARTEAREKIN ETA INTERES TALDEEKIN	13
3.2. BALIOAK ETA AHALDUNTZEA	14
a. EMAKUMEEN PRESENTZIA KIROLAREN PRAKTIKAN	14
b. SENTSIBILIZAZIOA – PRESTAKUNTZA – EZAGUTZA TEKNIKOAK BERDINTASUNAREN ARLOAN	16
3.3. BALIABIDEEN ANTOLAKETA	17
a. BALIABIDE EKONOMIKOAK - AURREKONTUAK	17
b. JARDUEREN ANTOLAKETA	18
c. DENBORAK - ESPAZIOAK	18
d. KIROL JANTZIA - EKIPAZIOA	19
e. SARIAK - AITORPENAK	19
3.4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA	20
a. SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA	20
b. NOLA JARDUN SALAKETA – JAZARPEN KASUEN AURREAN	20
I 4. ERRONKEN LABURPENA	22

1. SARRERA

Txostenak Euskal Aire Kirol Federazioko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren lehen diagnostikoa jasotzen du.

Diagnostikoa eta bertan oinarrituta egingo den plana Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisiko eta Kirol Zuzendaritzak eta Euskal Kirol Federazioen Batasunak sustatuta egingo dira. 2021ean, jasandako pandemiaren ondorioak arintzeko, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismo bat onartu zuten estatu kideentzat, Estatu bakoitzak, eremu sektorial bakoitzetik, helburu espezifikoak lortzeko laguntza ekonomikoak bidera zitzan. Ekimena Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren barruan kokatzen da (Next Generation funtsak, EB).

2022ko abuztuaren 2an, Kirol Kontseilu Gorenak autonomien araberrako zenbateko ekonomikoaren banaketa eta laguntzak aplikatzen zitzaizkien programak definitzen zituen Ebazpena argitaratu zuen. Programetako bat kirolean berdintasuna sustatzekoa da. Eta horren barruan, diruz lagundu zitezkeen ekintzak zehazten ziren.

Euskadin indarrean dagoen Kirol Federazioen 2006ko Dekretuak kirol federazioek berdintasunaren aldeko ekintza positiboko planak garatzeko derrigortasuna jasotzen du, eta hori egiteko Administrazio Publikoen lankidetzaren garrantzia azpimarratzen du. Era berean, euskal kirol federazioak eta Euskal Kirol Federazioen Batasuna berdintasun arloan ari dira lanean azken urteotan. Testuinguru horretan sustatu da Euskal Kirol Federazioen Batasuneko federazioek berdintasun planak egitea funts horien laguntzarekin. Eta, horrenbestez, uste dugu ekimena baliagarria izango dela federazio erakundeen kulturaren berdintasun printzipioak txertatzeko.

Prozesua egiteko, Emun Aholkularien laguntza teknikoa izan da. Prozesua 44 euskal federaziotan egin da, 2023ko urtariletik uztaileira. Era berean, kirol federazioetan diagnostikoak eta berdintasun planak egiteko gida erreferentziatzat hartuta definitu da esparru metodologikoa (Eusko Jaurlaritza, 2016).

2. DIAGNOSTIKOAREN PROZESUA ETA METODOLOGIA

Jarraian, Euskal Aire Kirol Federazioan egindako genero diagnostikoa egituratu duen oinarri metodologikoa eta gauzatutako prozesua zehaztuko ditugu. Prozesua zein metodologia propio egokitu dira Federazioaren errealitatera.

2.1 PROZESUAREN DESKRIBAPENA


Euskal Aire Kirol Federazioko emakumeen eta gizonen lehen diagnostikoa otsailetik martxora bitartean egin da eta funtsezko bi urrats hauek izan ditu:

ALDEZ AURREKO LANAK: prozesu osoaren planifikazioa eta kontrastea, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisiko eta Kirol Zuzendaritzarekin eta Euskal Kirol Federazioen Batasunarekin, baita datuak biltzeko tresnen diseinua ere.

DIAGNOSTIKOA: euskal federazio guztiei informazioa emateko eta federazio bakoitzetik prozesurako esleitutako pertsona guztiekin ekarpenak biltzeko bilera egitea; 44 federazioei datuak biltzeko tresnak zabaltzea, eta, ondoren, datu horiek biltzea; bakoitzaren ikuspegitik eta ikuspegi global batetik jasotako datuak aztertzea; lan saioetan txosten globala eta lehen aholkularitza txandan federazio bakoitzak egindako txostenak kontrastatzea.

Ibilbide honetan koordinazioak garrantzi handia izan du aurreko guztia behar bezala gauzatu ahal izateko. Koordinazioa etengabea izan da, bai federazio bakoitzetik esleitutako pertsonarekin, bai Euskal Kirol Federazioen Batasunarekin.

Honako irudi honetan jaso dugu egindako prozesua:



2.2 METODOLOGIA

Berdintasun plana neurri multzo ordenatu bat da, egoeraren diagnostikoa egin ondoren hartutakoa, emakumeen eta gizonen arteko tratu eta aukera berdintasuna lortzeko eta sexuan oinarritutako diskriminazioa desagerrarazteko. 48 euskal federazioen berdintasun planen diseinua Eusko Jaurlaritzak prestatutako Euskal federazio arloan berdintasuna landuz: hausnarketa gidatuz ekintzara pasatzeko gidaren barnean dago kokatuta. Gida hau Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisiko eta Kirol Zuzendaritzaren Genero ikuspegia txertatzeko estrategia (2017-2020)-ren barnean dago bildua, kirol federazioetan berdintasun planak sustatzea jasotzen duena, eta, horretarako, gida hori zabaltzea aurreikusten du.

Esparru hau 4 bloke tematikotan antolatzen da:

1. KUDEAKETA ETA GOBERNUA
2. BALIOAK ETA AHALDUNTZEA
3. BALIABIDEEN ANTOLAKETA ERANTZUKIDEA
4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA

Planak horien inguruan egituratu dira, eta diagnostikorako datuen bilketa ere horiei erantzunez diseinatu da.

44 federazio horien profila egiazki askotarikoa da, hainbat alderdiri dagokienez: federazioen dimentsioa, kirol diziplina desberdinak, askotariko baliabide eta kudeaketa bitartekoak, parte hartzaileen profil ugariak... Horregatik, prozesu honen erronketako bat federazio guztiek lekua izango zuten esparru bat diseinatzea izan da, baita planaren diseinua bakoitzaren errealitatera egokitu ahal izatea ere, plan egoki eta errealista bat sortuz, federazioen egunerokotasunean modu pragmatikoan eragiteko. Era berean, federazio bakoitzaren diagnostikoa eta plan pertsonalizatua egiteaz gain, horien guztien egoera orokorraren diagnostikoa egin da.

Bi lan ildoak uztartu ahal izateko, bi saio mota baliatu dira:

- Federazio guztiak biltzeko saioak: prozesua aurkezteko, diagnostiko orokorrari buruz hausnartzeko eta planak diseinatzeko helburuak eta ekintzak proposatzeko.
- Saio indibidualizatuak: dagokion federazioaren diagnostikoa kontrastatzeko eta plan indibiduala diseinatzeko.

Era berean, honako taula honetan, hainbat datu laburbiltzen dira: erabilitako informazio iturriak, zein helbururekin gauzatu diren eta nori dagokion egitea.

INFORMAZIO ITURRIAK	HELBURUA	NORK
1. Galdetegia	Azken urteetako ibilbidearen inguruko eta egunerokotasuneko kudeaketaren inguruko informazioa jasotzea genero berdintasunaren ikuspegitik.	→ Prestaketa eta analisia: Emun → Betetzea: Federazio bakoitzeko izendatutako arduraduna
2. Parte hartzearen taulak	Datu kuantitatiboen jasotzea. Emakumeen eta gizonen parte hartzearen datu segregatuak jasotzea eta azterketa egitea.	→ Prestaketa eta analisia: Emun → Betetzea: Federazio bakoitzeko izendatutako arduraduna
3. Dokumentazioa: → Azken batzar orokorraren deialdia eta akta → Zuzendaritza Batzordeko akta bat → Federatuei bidalitako mezu elektronikoko bat → Federazioaren estatutuak	Eguneroko funtzionamenduan genero ikuspegiak duen pisuaren analisia egitea. Barne komunikazioaren azterketa genero berdintasunaren ikuspegitik.	→ Bidaltzea: Federazio bakoitzeko izendatutako arduraduna → Analisia: Emun
4. Behaketa: → Federazio bakoitzaren web orrialdea → Federazio bakoitzaren sare sozialetako azkeneko 5 sarrerak	Kanpo komunikazioaren azterketa egitea. Ohitura onen eta hobetzeko beharren identifikazioa.	→ Behaketa eta analisia: Emun
5. EAE-ko kirolaren azterketa genero ikuspegitik: estatistika datuak	Federazioen argazki orokorra atera bilakaera aztertzeke.	→ Bidaltzea: EKFB → Analisia: Emun

2.3 ATALEN ETA EDUKIEN LABURPENA

ESPARRUA	DESKRIBAPENA	DATUAK
KUDEAKETA ETA GOBERNUA		
Federazioen esparruan, gobernu-organoen osaera, erakunde bakoitzak garatzen duen kudeaketa-estiloa –erakundeko langileak eta boluntarioak–, eta intereseko taldeekiko harremanetan genero-ikuspegia txertatzea erronka nagusietako bat da, gizonen eta emakumeen presentzia ez baita parekoa izaten haietan. Orobat kontuan hartu beharrekoa da komunikazioa —bai hartutako konpromisoena bai hizkuntzaren eta irudien tratamendua bera—, berdintasunean oinarritutako ereduak sortzeak dakarren erantzukizuna dela-eta.		- Parte hartze fitxa - Galdetegia - Behaketa - Dokumentuen analisisa - Elkarriketa
BALIOAK ETA AHALDUNTZEA		
Kirolak, generoz zamatutako balioak eta rol/estereotipoak gehitzen dituzte. Beharrezkoa da generoari lotutako rol, estereotipo edo aurreiritzi horiek zer nolako eragina duten jakitea, mekanismo batzuk landu ahal izateko emakumeak kirolarekin zer harreman duten ulertzeko. Horrekin batera, komeni da sortzen diren harremanak ere aztertzea: taldekideen artean sortzen direnak, kirolarien artean, entrenatzailearekin eta gainerako pertsonekin, arbitroekin, etab.		- Parte hartze fitxa. - Galdetegia - Elkarriketa
BALIABIDEEN ANTOLAKETA		
Kirol federazio baten lanak jarduera gogorra eskatzen du kudeaketan eta baliabideen antolamenduan. Komeni da laneko jarraibide batzuk finkatzea, esan ahal izateko egindako jardueren kudeaketa globalean kontuan hartu dela genero-ikuspegia. Horretarako beharrezkoa da jakitea zer aurrekontu bideratzen den emakumeen kirol esparrura, nola kudeatzen diren kirol espazioak eta ekipamenduak, tresneriak, arropa eta beste material batzuk (banaka edo taldean erabiltzekoak), eta nola egituratzen diren federazioetatik argitaratzen diren argitalpenak, sariak edo aitortpenak.		- Galdetegia - Elkarriketa
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA		
Emakumeen aurkako indarkeria errealitate estrukturala da bizitzaren eremu guztietan, nahiz eta, kasu gehienetan, ikusezina izan den eta ezer gutxi egin den hura desagerrarazteko. Ezinbestekoa da, hortaz, elkarte-kirolaren eremuan praktika desagoki guztiak identifikatzea eta mekanismo batzuk sortzea emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko. Halaber, jarraibide batzuk identifikatuta izan behar dira, indarkeriazko praktiken, sexu-jazarpen edo jazarpen sexista nabarmenen aurrean nola jardun jakiteko.		- Galdetegia - Elkarriketa

3. DIAGNOSTIKOA

Erakundeak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-maila aztertzea da genero-berdintasunaren diagnostikoa. Helburua da berdintasun-plan bat diseinatzeko eta adosteko esparru bat eskaintzea, egungo egoera hobetzeko eta erakundean berdintasuna lortzeko. Horretarako, informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa bildu eta aztertu da. Jarraian datuak eta horien analisia, baita identifikatutako erronkak aurkezten dira.

3.1 KUDEAKETA ETA GOBERNUA

Federazioen esparruan, gobernu-organoak osatzerakoan genero-ikuspegia txertatzea erronka nagusietako bat da, gizonen eta emakumeen presentzia ez baita parekoa izaten haietan.

Eragiteko moduko –eta eragin beharreko– alderdiak dira, halaber, erakunde bakoitzak garatzen duen kudeaketa-estiloa, pertsonak kudeatzeko modua –erakundeko langileak eta boluntarioak–, eta intereseko taldeekiko harremanak.

Orobat kontuan hartu beharrekoa da komunikazioa –bai hartutako konpromisoena bai hizkuntzaren eta irudien tratamendua bera–, berdintasunean oinarritutako ereduak sortzeak dakarren erantzukizuna dela-eta.

Eta, azkenik, erronka handiena: federazioak –edo beste era bateko kirol erakunde batek– garatutako estrategiaren eta jardueren diseinu globala. Nola lortu egiten den guztian genero-eragina aintzat hartzea, sistematikoki eta kontzienteki.

a. GOBERNU ORGANOAK

Gobernu organoen osaera:

ZUZENDARITZA (2022)				
	Emakume	Gizon	Guztira	% EM
Zuzendaritza		1	1	0
Zuzendaritza ordea				
Diruzaintza		1	1	0
Idazkaritza		1	1	0
Bestelakoak		4	4	0
GUZTIRA	0	7	7	0

ESTATUTUAK

Berdintasunak edo genero-ikuspegiak horietan duen presentzia.



6. Artikulua:

ñ) Dagozkion kirol modalitatean eta lurralde eremuan emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea, eta ahal den neurrian, bermatzea.

8. Artikulua:

Euskal Aire Kirol federazioan ezin izango da egin inolako arraza, sexu, erlijio, iritzi eta sinesteengatiko, edo norberaren edo bestelako arrazoi sozialengatiko bereizkeriarik.

72. Artikulua:

3. Aurrekontuan adieraziko dira federazioak gehienez onartu ditzakeen betebeharrak, eta dagozkion ekitaldian likidatzea aurreikusten dituzten eskubideak. Euskal Aire Kirol federazioaren aurrekontuan, halaber, kirol modalitate horretan emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzearekin zerikusia duten betebeharrak adierazi beharko dira

b. KUDEAKETA ETA GOBERNANTZARAKO EREDUA ETA TRESNAK

KUDEAKETA ETA GOBERNANTZA

Estatistika eta ikerketak emakumeen eta gizonen datuak bereizita egiten dira



Estatistiken eta ikerketen irakurketak emakumeen eta gizonen datu bereiziekina egiten dira



Genero berdintasuneko arduraduna dago



Azken lau urteetan genero berdintasun diagnostikoa egin da



Azken lau urteetan genero berdintasun plana egin da



c. ERAKUNDEKO LANGILEAK ETA BOLUNTARIOAK

Ez dago langile kontrataturik.

d. KOMUNIKAZIOA (BARRURA ETA KANPORA BEGIRAKOA)

KOMUNIKAZIOA

Genero-berdintasunarekiko konpromiso formala (sinatua)



Hizkera eta irudi ez sexistak lantzeko formazioa jaso da



Barne zein kanpo komunikazioa ez sexista izateko irizpideak daude



Barne zein kanpo komunikazioan hizkera ez sexista erabiltzen dela ziurtatzeko neurriak daude



WEB ORRIALDEAREN BEHAKETA



Ez da adierazpen sexistarik erabili. Hizkera ez-sexista erabiltzeko estrategiak identifikatzen badira ere (atención al usuario/a, uno/a de esos/as valientes), noizean behin maskulino orokortzailea ikusten da (verdaderos apasionados).

Irudiei dagokienez, ez dago irudi sexistarik, eta erabiltzen direnen artean, batean gizon bat dela bereizten da, baina gainerakoetan emakumeak edo gizonak izan daitezke.

Ez dago berdintasun atalik.

ANALISIA ETA ONDORIOAK

- Euskal Aire Kirol Federazioan ez dago berdintasunaren gaiaren arduradunik, eta orain arte ez da diagnostikorik eta berdintasun planik egin.
- Zuzendaritza Batzordean emakumeek duten presentziari dagokionez, ez dago emakumerik parte hartzen, eta ez dago langile kontrataturik.
- Estatutuek berdintasun printzipioa jasotzen duten arren, ez dago genero berdintasunarekin sinatutako konpromisorik.
- Komunikazioari dagokionez, ikusten da hizkuntza ez-sexista erabiltzeko lanean ari direla, horretarako hainbat estrategia erabiliz. Hala ere, termino batzuetan maskulino orokortzailearen erabilera ikusten da («verdaderos apasionados»). Irudiei dagokienez, ez dago irudi sexistarik, eta pertsonak agertzen diren irudietan emakumeak zein gizonak agertzen dira. Orain arte ez da gaiari buruzko formaziorik jaso, ez da komunikazio inklusiboa erabiltzeko gidarik erabili eta ez dago irizpiderik.
- Datuak bereizita jasotzen dira, eta ildo horretan irakurketak egiten dira.

ERRONKAK

- Berdintasun arduradun bat izendatzea, plana eta ekintzak bultzatzeko.
- Emakumeen presentzia handitzea Zuzendaritza Batzordeetan.
- Berdintasunarekin konpromiso formala hartzea eta ezagutaraztea.
- Aukeratu hizkuntza inklusiboa erabiltzeko gida bat.
- Komunikazio irizpideak sortzea: kontzeptu jakin batzuk modu inklusiboan nola izendatu erabakitzea, irizpideetara eramatea eta Federazioan erabilera orokortzea.
- Webgunean berdintasunaren gairako espazio bat sortzea.
- Federatuak sensibilizatzea.
- Espainiako Federazioaren berdintasun planaren ekintzak identifikatu, Euskadiko Federaziora ekarri ahal izateko.

3.2 BALIOAK ETA AHALDUNTZEA

Kirolak, oro har, eta haren praktika zehatzek, generoz zamatutako balioak eta rol/estereotipoak gehitzen dituzte, eta kirol-federazioen kudeaketa eta eraginean ere gertatzen da hori. Beharrezkoa da generoari lotutako rol, estereotipo edo aurreiritzi horiek zer nolako eragina duten jakitea, mekanismo batzuk landu ahal izateko emakumeak kirolarekin zer harreman duten ulertzeko (hurbiltzea, jarraitzea, bertan behera uztea, berriro hurbiltzea edo behin betiko uztea). Kontziente izateko eta genero-ikuspegiz hornitutako kirol praktikarako kudeaketa eta espazioak sortzeko borondatea edukitzeko, beharrezkoa da sexu/genero, adin eta gizarte-segmentuen arabera interesak, beharrianak eta itxaropenak zeintzuk diren jakitea.

Halaber, ezagutarazi egin behar da haurdunaldian, amatasunean eta edoskitzaroan kirola egiteak zer nolako eragina dakarren eta zer baldintza fisiko bete behar diren kirol jakin bat egiteko. Horrekin batera, komeni da sortzen diren harremanak ere aztertzea: taldekideen artean sortzen direnak, kirolarien artean, entrenatzailearekin eta gainerako pertsonekin, arbitroekin, etab. Pertsonen arteko harremanetan –bizitzako esparru guztietan–, beti egoten dira genero-elementuak; gehienetan ezezagunak izaten dira edo ez dira zalantzan jartzen, eta, horregatik, berdintasunik gabeko tratua eragin dezakete, baita tratua sexista ere.

a. EMAKUMEEN PRESENTZIA KIROLAREN PRAKTIKAN

KIROLARIEN LIZENTZIAK (2021)					KIROLARIEN LIZENTZIAK (2022)				
Kategoriak (adin tarteak)					Kategoriak (adin tarteak)				
	Emakume	Gizon	Guztira	% EM		Emakume	Gizon	Guztira	% EM
6-12 urte					6-12 urte				
13-14 urte					13-14 urte				
15-16 urte					15-16 urte				
17-18 urte					17-18 urte				
19-21 urte					19-21 urte				
22-35 urte					22-35 urte				
36 eta gehiago					36 eta gehiago				
GUZTIRA					GUZTIRA				

KIROLARIEN LIZENTZIAK (2021)					KIROLARIEN LIZENTZIAK (2022)				
Lurraldeak					Lurraldeak				
	Emakume	Gizon	Guztira	% EM		Emakume	Gizon	Guztira	% EM
Bizkaia					Bizkaia				
Araba					Araba				
Gipuzkoa					Gipuzkoa				

OFIZIAL ETA EPAILEAK (2021)					OFIZIAL ETA EPAILEAK (2022)				
	Emakume	Gizon	Guztira	% EM		Emakume	Gizon	Guztira	% EM
Kiroleko mailarik gorenean					Kiroleko mailarik gorenean				
GUZTIRA					GUZTIRA				

b. SENTSIBILIZAZIOA - FORMAZIOA – EZAGUTZA TEKNIKOAK BERDINTASUNAREN ARLOAN

FORMAZIOA

EKBfK edo Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzatik (Eusko Jaurlaritzatik antolatutako genero berdintasunaren inguruko formazioetan parte hartu da



Azken lau urteetan federaziotik genero berdintasunaren inguruan formazioa(k) antolatu d(ir)a



ANALISIA ETA ONDORIOAK

- Ezin izan dira epaileen lizentziei eta estamentuari buruzko datuak aztertu.
- Diziplinetan ez dago desberdintasun fisikorik gizonen eta emakumeen artean, eta, beraz, Federazioak motibazioan eta hezkuntzan lan egiten du. Zentzu horretan, hau garatzen ari da:
 - «Voleteras» jarduerak sustatzea
 - Lehiaketa ofizialetan emakumeen palmaresa sortzea.
 - Emakumearen eta bidaia librearen sustapen bideoa.
- Federazioko lehiaketetan emakumeen sailkapena dago. Kategoria hau soilik emakumeen parte hartzea sustatzera bideratuta dago.
- Era berean, emakume parapentista talde estatalaren jarduerak sustatzen dira, pilotu maskulinoei zein femeninoei bideratuta daude, baina gehienak emakumeek egindako jarduerak dira, emakumeari ikusgarritasun handiagoa emanez eta berdintasunari buruzko gaitan zuzenean eta zeharka bultzada emanez.
- Adierazi da Federazioan emakumeen proportzioa 30 gizonetik 1 izan daitekeela. Kontuan hartuta proportzioa txikia dela eta, gainera, modalitate desberdinak daudenez ehuneko hori sakabanatuago geratzen dela, interesgarria izan daiteke federatutako emakumeen artean sareak ehuntzeko ekintza lerro bat lantzea.
- EKFBren formazio ekintzetan ez da parte hartu.

ERRONKAK

- Federatutako emakumeen artean sareak ehuntzeko ekintza ildo bat lantzea: emakume federatuak biltzea, zertan eragin nahi den erabakitzeko. Urtero egitea, neguan, parte hartzea errazteko.
- Diziplina desberdinetako emakumeak biltzea: bakoitzean egiten dena partekatu, elkarrekin egin daitezkeen aukerak bilatu...
- Komunikazio ekintza bat egitea emakumeen arteko kirola ezagutarazteko eta haien presentzia handitzeko.
- EKFBren formazio ekintzetan parte hartzea.
- Klubei berdintasunari buruzko prestakuntza ematea Federazioan prestakuntza jaso ondoren.
- Federatuak sentsibilizatzea: Federazioan edukia sortzea edo EKFB bidez, eta klub bidez zabaltzea.

3.3 BALIABIDEEN ANTOLAKETA

Kirol federazio baten lanak –baita kirol arloko beste egitura batzuenak ere– jarduera gogorra eskatzen du kudeaketan eta baliabideen antolamenduan, eta elkarte-erakunde horiek erantzule bihurtzen ditu erakunde horren erabilera eta eraginari dagokionez. Beharrezkoa da jakitea zer aurrekontu bideratzen den emakumeen kirol esparrura, nola kudeatzen diren kirol espazioak eta ekipamenduak, tresneriak, arropa eta beste material batzuk (banaka edo taldean erabiltzekoak), eta nola egituratzen diren federazioetatik argitaratzen diren argitalpenak, sariak edo aitortpenak.

Oro har, komeni da laneko jarraibide batzuk finkatzea, esan ahal izateko egindako jardueren kudeaketa globalean kontuan hartu dela genero-ikuspegia eta hori nabarmen ikus daitekeela haren diseinuan –genero-eraginaren alde aurreko ebaluazioekin–, garapenean eta ondorengo ebaluazioan

a . BALIABIDE EKONOMIKOAK- AURREKONTUA

AURREKONTUA

Genero arloari espezifikoki dagokion diru partida bat dago aurrekontuetan



Genero berdintasunarekin lotutako dirulaguntza espezifikoak bilatu dira



b. JARDUEREN KUDEAKETA

JARDUERAK

Zure federazioan antolatutako jardueretan informazioa emakume eta gizonen arabera jasotzen da	☒
Federaziotik antolatzen diren jardueretan baliabide eta material berdinak eskaintzen zaizkie beti gizon eta emakumeei (bidaiak ordaindu, ostatuak, materiala...)	☒
Emakumeen kirol praktikari gizonen praktikari bezain besteko protagonismoa ematen zaio (entrenamenduak, kontsultak, lehiaketen datak, ordutegiak...)	☒
Kirol egokitua integratzeko lan ildo dago	☐
Emakumeentzako ekimen bereziak aurreikusten dira	☐

c. DENBORAK - ESPAZIOAK

DENBORAK - ESPAZIOAK

Jarduerak/lehiaketa ordutegiekin, ordenak...pertsonek bizitzetan daukaten inpaktua kontuan hartzen da	☐
Gizonek espazioak eta ekipamenduak erabiltzeko lehentasuna dute	☒

d. KIROL JANTZIA- EKIPAZIOA

KIROL JANTZIA- EKIPAZIOA

Kirol jantzietan gizon eta emakumeen ergonomía zaintzen da (kirolari, teknikari, arbitro, epaimahai...)	☒
Emakume kirolarien duintasuna kaltetzen duten edo haren irudiaren erabilera sexista egiten duten jantziak erabiltzen dira	☐

e. SARIAK - AITORPENAK

SARIAK - AITORPENAK

Sari mota berdinak ematen zaizkie emakume eta gizonei (tamaina, dirua, balioa, ikusgarritasuna...)



Epaimahaiak osatzeko eta bozketetan parte hartzen duten pertsonak aukeratzeko genero ikuspegia kontuan hartzen da



ANALISIA ETA ONDORIOAK

- Ez dago partida espezifikorik federazioan berdintasuna lantzeko, baina aurrekontu partida bat bideratu da emakume pilotuentzako motibazio bideo bat sortzeko.
- Federazioak antolatutako jardueretan informazioa emakumeen eta gizonen arabera jasotzen da.
- Beti baliabide eta material berberak eskaintzen zaizkie gizonei eta emakumeei, jarduerak antolatzen direnean (bidaia, ostatuak, materiala ordaintzea).
- Gizonek eta emakumeek kirola egiteari protagonismo bera ematen zaio: pertsona guztiak batera lehiatzen dira, ranking bakarrarekin, eta ondoren emakumeen zerrenda bat egiten da haien parte hartzea ikusarazteko.

ERRONKAK

- Federazioan berdintasuna lantzeko partida espezifiko bat definitzea

3.4 EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA DESAGERRARAZTEA

Emakumeen aurkako indarkeria errealitate estrukturala da bizitzaren eremu guztietan, nahiz eta, kasu gehienetan, ikusezina izan den eta ezer gutxi egin den hura desagerrarazteko. Ezinbestekoa da, hortaz, elkarte-kirolaren eremuan praktika desegoki guztiak identifikatzea eta mekanismo batzuk sortzea emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko. Halaber, jarraibide batzuk identifikatuta izan behar dira, indarkeriazko praktiken, sexu-jazarpen edo jazarpen sexista nabarmenen aurrean nola jardun jakiteko.

a. SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

Sexu-jazarpen edo sexuagatiko jazarpen kasuak kudeatzeko formazioa jaso da



Sexu-jazarpen edo sexuagatiko jazarpen kasuak kudeatzeko arduraduna dago



Sexu-jazarpen edo sexuagatiko jazarpen egoerak prebenitzeko jarduerak egiten dira



b. NOLA JARDUN SALAKETA/JAZARPEN KASUEN AURREAN

NOLA JARDUN SALAKETA/JAZARPEN KASUEN AURREAN

"Zure taldekoak gara" zerbitzua ezagutzen da



Federazioan sexu-jazarpen edo sexuagatiko jazarpen kasuak kudeatzeko protokoloa dago



Federazioan sexu-jazarpen edo sexuagatiko jazarpen kasuak ezagutzen dira



ANALISIA ETA ONDORIOAK

- Ez dago sexu jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko kasuak kudeatzeko arduradunik, eta ez da gaiari buruzko formaziorik jaso.
- Ez dago erantzun protokolorik ere, lantzen ari dira.
- Ez da ezagutzen “Zure Taldekoak Gara” zerbitzua.

ERRONKAK

- Pertsona bat izendatzea sexu jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko kasuak kudeatzeaz arduratzeko.
- Sexu jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko kasuak kudeatzeko formazioa jasotzea.
- Kirolean sexu jazarpeneko eta abusuko eta sexuan oinarritutako abusuko ekintzen aurkako Prebentzio eta Zehapen Araudia landu eta onartzea (Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzarekin eta EKFBrekin lankidetzan).
- Sexu jazarpeneko eta sexuan oinarritutako abusuko ekintzen aurrean jarduteko jarraibideak landu eta onartzea (Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzarekin eta EKFBrekin lankidetzan).
- Protokolo hori ezagutaraztea.
- «Zure taldekoak gara» zerbitzuari buruzko informazioa jasotzea, eta Federazioan ezagutaraztea.

4. ERRONKEN LABURPENA

KUDEAKETA ETA GOBERNUA

- Berdintasun arduradun bat izendatzea, plana eta ekintzak bultzatzeko.
- Emakumeen presentzia handitzea Zuzendaritza Batzordeetan.
- Berdintasunarekin konpromiso formala hartzea eta ezagutaraztea.
- Aukeratu hizkuntza inklusiboa erabiltzeko gida bat.
- Komunikazio irizpideak sortzea: kontzeptu jakin batzuk modu inklusiboan nola izendatu erabakitzea, irizpideetara eramatea eta Federazioan erabilera orokortzea.
- Webgunean berdintasunaren gairako espazio bat sortzea.
- Federatuak sentsibilizatzea.
- Espainiako Federazioaren berdintasun planaren ekintzak identifikatu, Euskadiko Federaziora ekarri ahal izateko.

BALIOAK ETA AHALDUNTZEA

- Federatutako emakumeen artean sareak ehuntzeko ekintza ildo bat lantzea: emakume federatuak biltzea, zertan eragin nahi den erabakitzeko. Urtero egitea, neguan, parte hartzea errazteko.
- Diziiplina desberdinetako emakumeak biltzea: bakoitzean egiten dena partekatu, elkarrekin egin daitezkeen aukerak bilatu...
- Komunikazio ekintza bat egitea emakumeen arteko kirola ezagutarazteko eta haien presentzia handitzeko.
- EKFBren formazio ekintzetan parte hartzea.
- Klubei berdintasunari buruzko prestakuntza ematea Federazioan prestakuntza jaso ondoren.
- Federatuak sentsibilizatzea: Federazioan edukia sortzea edo EKFB bidez, eta klub bidez zabaltzea.

BALIABIDEEN ANTOLAKETA

- Federazioan berdintasuna lantzeko partida espezifiko bat definitzea

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN DESAGERRARAZTEA

- Pertsona bat izendatzea sexu jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko kasuak kudeatzeaz arduratzeko.
- Sexu jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko kasuak kudeatzeko formazioa jasotzea.
- Kirolean sexu jazarpeneko eta abusuko eta sexuan oinarritutako abusuko ekintzen aurkako Prebentzio eta Zehapen Araudia landu eta onartzea (Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzarekin eta EKFBrekin lankidetzan).
- Sexu jazarpeneko eta sexuan oinarritutako abusuko ekintzen aurrean jarduteko jarraibideak landu eta onartzea (Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzarekin eta EKFBrekin lankidetzan).
- Protokolo hori ezagutaraztea.
- «Zure taldekoak gara» zerbitzuari buruzko informazioa jasotzea, eta Federazioan ezagutaraztea.